



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 106. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Abendua



GIPUZKOA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2015ko Abendua

## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Euskal Eurohiriaren Mugaz Gaindiko Agentziaren Batzordearen bilera berria

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Agglomération Côte Basque Adour-ek (ACBA) Euskal Eurohiriaren Mugaz Gaindiko Agentzia Kudeatzeko Batzordea aktibatu dute. Era horretan, ordezkariak biek mugaz gaindiko kooperazioari bultzada berri bat eman nahi diote. Horretarako, kolaborazio-proiektuak berreskuratu eta martxan jarri behar dira, Eurohiriko biztanleen bizi-kalitatean eragin positiboa izateko.

Abenduaren 17an eginiko topaketan honako hauek parte hartu zuten: Markel Olano, Gipuzkoako Diputatu Nagusia eta mugaz gaindiko Agentziaren burua; Jean-René Etchegaray, ACBAko burua eta Agentziaren kudeatzailea; Jean-Pierre Laflaquiere, ACBAko lurralde-kooperazioen komunitate-aholkulari ordezkaria; Peio Claverie, ACBAko mugaz gaindiko gaien komunitate-aholkulari ordezkaria; Iker Goiria, DFG-ko kanpo-harremanetako zuzendaria; Jean Paul Badie, ACBAko DGS, eta Marc Amestoy, ACBAko kabineteko zuzendaria.

Topaketak balio izan zuen mugaz gaindiko Agentziaren kudeatzaile berriek elkar ezagutzeko, eta Euskal Eurohiriaren etorkizunari buruzko truke politikoa egiteko. Horrez gain, egindako lanak eta Eurohiriaren Operazio eta Estrategia Plana laburbildu, eta lanaren hurrengo etapak ezarri zituzten.

Martxan dauden proiektuak ere aztertu ziren. Zehazki, honako hauek: mugaz gaindiko ikasle-trukeko programa, mugako bi aldeetako enpresen arteko sustapen ekonomikoko eta kolaborazioko programak, eta Euskal Eurohiriko Argi Berde eta Urdineko proiektua-REDVERT. Horrez gain, lan-gai berriak planteatu zituzten, hala nola autobideen mugaz gaindiko teleordainketa. Azkenik, 2016ko behin-behineko aurrekontua onetsi zen.

*Informazio gehiago:*

[http://www.gipuzkoa.eus/es/aktualitatea/berriak/berri-xehetasun-/journal\\_content/56\\_INSTANCE\\_a23dxaTNqV38/10180/1914928/32195](http://www.gipuzkoa.eus/es/aktualitatea/berriak/berri-xehetasun-/journal_content/56_INSTANCE_a23dxaTNqV38/10180/1914928/32195)



### > **Gipuzkoako Foru Aldundiak Bruselako euskal europarlamentariak Kudeatzeko Plana aurkeztu du**

Azken hilabeteetan Gipuzkoako Foru Aldundia Europako zenbait agenterekin harremanetan egon da Bruselan, Foru Gobernua lurraldeko nazioarteko proiektioari bultzada emateko ezartzen ari den estrategia dela eta.

Testuinguru horren barruan, Gizartearekiko Komunikazio eta Gobernamentuko diputatua, Imanol Lasa eta Kanpo Harremanetako zuzendaria, Iker Goiria, Izaskun Bilbao, Iosu Juaristi eta Ramón Jauregui europarlamentariekin bildu dira Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzako egoitzan. Marta Marínekin (Euskadiren Ordezkaritzako arduraduna Bruselan) ere bildu dira.

Bilera horien helburuak izan dira aldundia egiten ari den plan eta proiektu nagusiak ezagutzera ematea, bereziki Kudeaketako Plan Estrategikoa, Gipuzkoako Suspertze Ekonomikorako Plana eta 'Gipuzkoa Indartuz' proiektua. Azken horren bitartez, Kanpo Harremanetako Zuzendaritzak Europako alorrarekin harremanak indartu nahi ditu, Europako erakundeekin era arin eta sistematikoan kolaboratuz, eta lurraldean Europako ideia sendotzera lagunduz.

*Informazio gehiago:*

[http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/2531/diputacion-presenta-plan-gestion-europarlamentarios-vascos&anti\\_cache=1452688807679](http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/2531/diputacion-presenta-plan-gestion-europarlamentarios-vascos&anti_cache=1452688807679)



## KOHESIO-POLITIKA

### > EGEF 2014-2020 Programa Eragileen exekuzio-faseari hasiera eman zaio

Onesteko falta zen eskualdeko azken programa operatiboa hartu du batzordeak: zehazki, Eskualde Garapeneko Europako Funtsa 2014-2020 Programa Operatiboa (EGEF), Italiako Campania eskualderako. 4.000 milioi euro baino gehiago esleitu zaizkio, eta horietatik 3.000 milioi EGEFetik datoz.

Hartutako gainerako programak bezala, Campaniako Programa Operatiboaren markoko inbertsioek honako lau hazkuntza-sektore hauetan jartzen dute arreta: ikerketa eta berrikuntza, teknologia digitalak, enpresa txikiei babesa eta karbono-emisio txikietako ekonomia.

Campaniako eskualdeko EGEF programa hartzeko geratzen zen azkena zenez, programa hori hartzearen ondorioz 2014-2020 programazio-aldi berriaren exekuzio-faseari hasiera eman zaio. Orain eskualdeek eta udalek programak exekutatu (onetsitako plangintzari jarraituz) eta kalitatezko proiektuak aukeratu behar dituzte, baita funtsen erabilera eraginkor eta estrategikoa bermatu ere.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/es/atlas/programmes/](http://ec.europa.eu/regional_policy/es/atlas/programmes/)



### > **2014-2020** aldian egitura-funtsak exekutzeko finantza-tresnei buruzko mintegiak

Europako Batzordeak, FI-COMPASS finantzaketa-tresnei buruzko Europako plataformaren bidez, jakinarazi du datozen hilabeteetan zenbait mintegi egingo direla, 2014-2020 aldirako Europako egitura- eta inbertsio-funtsen helburuak lortzeko finantza-tresnen abantailei, funtzioei eta egokitasunari buruzkoak. Bereziki nabarmenduko dira estatu kide bakoitzaren gai-lehentasunak.

Europako Batzordeko ordezkariak, Europako Inbertsio Bankuko Taldeak zein estatuko adituek esperientzia eta jakintza partekatuko dute, EEI funtsetako finantza-tresnak praktikan aplikatzeari buruz. Mintegi bakoitza osoko bilkura batez osatua egongo da. Bertan kasuen azterketak aurkeztuko dira, eta taldekako lan bidezko prestakuntza-saioak egingo dira.

FI-COMPASS ikasteko jarduera horiek bereziki erabilgarriak dira agintaritza kudeatzaileentzat, beste erakunde publikoentzat eta horren inguruan interesa duten eta EGEF, FC, EGIF, FEMP eta FEADER funtsen finantza-tresnekin lan egiten duten sektore pribatuetako alderdientzat.

Mintegien hizkuntza nagusia ingelesa izango da. Interpretazio-zerbitzua eskainiko da nazioko hizkuntzan. Izen-ematea doakoa da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/es/newsroom/news/2015/12/12-02-2015-seminar-series-on-financial-instruments-delivering-esi-funds-registrations-are-open](http://ec.europa.eu/regional_policy/es/newsroom/news/2015/12/12-02-2015-seminar-series-on-financial-instruments-delivering-esi-funds-registrations-are-open)



### > Eusko Jaurlaritzak zuzenketak aurkeztu dizkio Eskualdeetako Lantaldeari, zergei eta gizarte-ekonomiari dagokionez

Eskualdeetako Lantaldeak osoko bilkura bat egin zuen azaroaren bukaera aldera. Bilkura horretan, organo horren zenbait irizpen politikoren hamabi zuzenketa aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzak. Horien artean nabarmentzekoak dira Euskadik sozietate-zerga arautzeko duen ahalmenaren defentsa eta gizarte-ekonomiako enpresek gaur eguneko testuinguruan duten rol garrantzitsua.

Eusko Jaurlaritzak “sozietateentzako ezarpen-sistema bidezkoa” testuaren zuzenketak aurkeztu zituen. Horien artean aipagarria da zenbait eskualdek zergak arautzeko eskumena dutela. Horrez gain, eskatu zuen eskualde horiek batzordearekin harreman zuzena izatea, ezarpen-erregimenei buruzko informazioa emateko.

Aurrekoaz gain, ekonomiaren eta enpleguaren susperraldian gizarte-ekonomiak duen rolari buruzko irizpenean gizarte-ekonomiako enpresek duten garrantzia babestu da, horiek ordezkatzeko balio erantsia dela eta.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak Europako Migrazio Agendaren inguruko bere proposamenak sartzea lortu du. Horien bidez, Europak iheslariekin elkartasuna izan behar duela azpimarratu du berriz. Azkenik, Europako Batasunari proposatu dio tresna egokiak sortzea, estatistika-datuak eskualde eta toki mailan sistematizatzen. Izan ere, funtsezkoak dira European politika eraginkorrak eta eskualde eta hirien benetako beharrek bat datozenak formulatzeko.

*Informazio gehiago:*

<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/29880-comite-las-regiones-reconoce-capacidad-normativa-euskadi-materia-fiscal>



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2015ko Abendua

## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > **Batzordeak Ekonomia Zirkularra lortzeko neurriak aurkeztu ditu**

Europako Batzordeak neurri-sorta garrantzitsu bat aurkeztu du, ekonomia zirkularra lortzeko helburuz.

Ekonomia zirkularrean produktuen eta materialen balioa ahalik eta denbora luzeenean mantentzen da; hondakinak eta baliabideen erabilera minimora murrizten dira, eta baliabideak ekonomiaren barruan mantentzen dira produktu bat bizitza baliagarriaren bukaerara heldu denean, behin eta berriz erabiltzeko eta balioa sortzen jarraitzeko.

Ekonomia zirkularreko eredu hori garatuz, Europako Batzordeak enplegu segurua sortzea sustatu nahi du, baita berrikuntza bultzatu ere, lehiaketa-abantaila eta pertsonen eta ingurumenaren babes maila handiagoa lortzeko. Ekonomia zirkularrak produktu iraungarriagoak eta berritzaileagoak eskainiko dizkie kontsumitzaileei, eta produktu horiek dirua aurrezte eta bizi-kalitate hobea ekarriko dute.

Ekonomia zirkular horretara heltzeko trantsizioa errazteko, Europako Batzordeak ekintza eta ekimen multzo bat onetsi du. Horien artean hondakinei eta birziklatzeari buruzko lege-proposamen garrantzitsuak daude.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/environment/circular-economy/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/environment/circular-economy/index_en.htm)

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/en/newsroom/news/2015/12/12-02-2015-cohesion-policy-supports-the-circular-economy](http://ec.europa.eu/regional_policy/en/newsroom/news/2015/12/12-02-2015-cohesion-policy-supports-the-circular-economy)



### > **Inbertsioaren berrabiada, egitura-erreformak eta aurrekontu-politika arduratsuak 2016ko Europako sei-hilekoaren ardatz nagusiak izango dira**

2016ko lehen sei-hilekoan zehar garatuko diren helburuak eta neurri nagusien multzoa aurkeztu ditu batzordeak. Erronka politikoak ezberdinak dira herrialde kidearen arabera, hortaz, proposamenak ere ezberdinak dira. Hala ere, gai orokor batzuek Batasun osoari eragiten diete. Susperraldia finkatzeko eta konbergentzia sustatzeko, batzordeak honako hiru ardatz nagusi hauetan arreta jartzeko proposatzen du: inbertsioaren berrabiada, egitura-erreformen jarraipena eta aurrekontu-politika arduratsuak.

Neurri-multzo hori batzordearen udazkeneko aurreikuspen ekonomikoen azkeneko datuetan oinarritzen da. Horrez gain, Europako sei-hilekoaren ikuspegi berria islatzen du, duela gutxi Batasun Ekonomikoa eta Monetarioa osatzeko neurriei buruzko batzordearen jakinarazpenean ezarritakoa.

*Informazio gehiago:*

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_MEMO-15-6070\\_en.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-15-6070_en.htm)





## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > **Enpresa txiki eta ertainei zuzendutako finantza-tresnak (Europako Batzordea)**

EBk nagusiki enpresa txiki eta ertainei ematen die laguntza. Laguntza horrek sektore pribatuko bi heren eta EBko ekonomiaren benetako balio erantsiaren % 60 inguru ordezkutzen du.

Txosten honek 2007-2013 aldian zehar finantza-tresnen exekuzioan egindako aurrerapenaren ikuspuntu orokorra eskaintzen du, eta 2014-2020 aldi berrirako nobedadeak eta aurreikuspenak aurkezten ditu.

Adierazitako emaitzei jarraituz, batzordeak ondorioztatu du era zentralizatuan kudeatutako finantza-tresnek palanka-eragin garrantzitsua lortu dutela, eta aditzera eman du tresnek nola jokatu duten helburu estrategikoak jarraitzeko, orain eskuragarri dauden datuetan oinarrituta.

*Informazio gehiago:*

[http://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:d1d8e4af-8fab-11e5-983e-01aa75ed71a1.0003.02/DOC\\_1&format=PDF&utm\\_source=EENbasque+NetworkNews&utm\\_campaign=8487be0ea3-Boletin\\_87\\_Diciembre\\_2015\\_Network\\_News&utm\\_medium=email&utm\\_term=0\\_9f2927a6bb-8487be0ea3-207524845](http://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:d1d8e4af-8fab-11e5-983e-01aa75ed71a1.0003.02/DOC_1&format=PDF&utm_source=EENbasque+NetworkNews&utm_campaign=8487be0ea3-Boletin_87_Diciembre_2015_Network_News&utm_medium=email&utm_term=0_9f2927a6bb-8487be0ea3-207524845)



### > Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen ekarpena Batzordearen hamar lehentasunei

Abenduaren erdialdean, batzordeak komunikazioa hartu du Europako egitura- eta inbertsio-funtsek EBko hazkunde-estrategiari, inbertsio-planari eta batzordearen lehentasunei azkeneko hamarkadan egindako ekarpenari buruz.

Txostenak estatu kide guztiakin egindako negoziaketen emaitzak ere barne hartzen ditu, elkarte-akordioei, programei eta herrialde bakoitzaren erronka nagusiei dagokienez.

Hartutako komunikazioarekin batera, batzordeak zenbait informazio-fitxa (oso bisualak) argitaratu ditu, Europako egitura- eta inbertsio-funtsek batzordearen lehentasun bakoitzari egindako ekarpenari dagokionez:

- enplegua, hazkundera eta inbertsioa
- merkatu digital bakarra
- energiaren eta klima-aldaketari buruzko politiken bateratzea
- barne-merkatua
- bateratze ekonomiko eta monetarioa
- justizia eta oinarrizko eskubideak
- migrazioa

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/en/policy/what/investment-policy/esif-contribution](http://ec.europa.eu/regional_policy/en/policy/what/investment-policy/esif-contribution)



### > Europar Batasuneko inbertsio-politikaren aplikazioa (*Panorama* aldizkaria. 2015eko neguko edizioa)

DG Regioren *Panorama* aldizkariko 55. zenbakiaren gai nagusia da 2014-2020 aldirako EBren lehentasun nagusiei eskualde-politikak egindako ekarpena. Aldizkariak infografiak, proiektuen adibideak eta Corina Crețu komisarioarekin egindako elkarrizketa bat jasotzen ditu. Elkarrizketa hori EIE funtsek sektore ezberdinak (enplegua, ikerketa, migrazioa...) garatzeko ematen duten laguntzari buruzkoa da.

Beste atal batzuetan, 2015 RegioStars sariak irabazi dituzten proiektuak aurkezten dira, baita “Europa nire eskualdean” argazki-lehiaketa irabazi duten hiru argazkiak ere.

“Ahots propioa” atalean Poloniari, Danimarkari, Finlandiari eta Txekiari buruzko eta kohesio-politikak herrialde horietan duen rolari buruzko artikuluak daude.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag55/mag55\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag55/mag55_en.pdf)



## EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **Zientziaren eta Berrikuntzaren Hiria 2015 saria emateko deialdia (Ekonomia eta Lehiakortasuneko Ministerioa)**
- **ERASMUS+ Politiken erreformei babesa – Berrikuntza politikoko ekimenak (EACEA/34/2015)**
- **HORIZON2020. Europar intereseko Europako ikerketa-azpiegiturak integratu eta zabaldu dira.**
- **HORIZON2020. Enpresa txiki eta ertainen berrikuntzari babesa (H2020-INNOSUP-04-2016)**
- **HORIZON2020. Hiri inteligenteak eta iraunkorrak (H2020-SCC-1-2016-2017)**
- **HORIZON2020. Karbono gutxiko energia lehiakorra (H2020-LCE-2016-2017)**
- **HORIZON2020. e-Azpiegiturak (H2020-EINFRA-2016-2017)**